



S.FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa berri bat sortzeko ohiko zailtasunetako bat proiekturako finantzaketa aurkitzea da, eta finantzaketa hainbat modutan lor daiteke, adibidez: bankuari maileguak eskatzea edo laguntza ekonomikoak eskatzea. Gure kasuan, laguntza ekonomikoak eskatuko ditugu eta maileguak emango ditugu; izan ere, gazteak gara eta dirua lortzea zailagoa da.

Mailegua: Kontuan hartuta hiru garela enpresan lan egiten dugunak, hasieran ez dugu nahikoa diru izango proiektua aurrera ateratzeko. Horregatik, gutako bakoitzak 40.000 €-ko mailegua eskatuko dio bankuari. Guztira, 120.000 € izango genituzke enpresa martxan jartzeko, baina ez litzateke nahikoa izango.

Banku batzuetan, gazteentzako dohaintzak errentagarriak izaten dira, hau da, BBVA bankuan, mailegu bat eskaintzen dute beren enpresa edo negozio propioa hasi nahi dutenei. Eta mailegu edo laguntza hori bankuari eskatu baino lehen, enpresa izango dituen gauzetako batzuk azaldu beharko ditugu, hala nola helburua, zer den... Hasteko, proiektua zehatz-mehatz azaldu beharko diogu bankuari, eta udalean aukerak kontsultatu.

Diru-laguntza: Diru kopuru hori nahikoa ez denez, udaletxeari diru laguntzak eskatuko dizkiogu. enpresak sortzen dituzten gazteentzako dirulaguntzak 25.000€ eta 75.000€ artean egon ohi direlako.

Kapitala: Gure sozietatearen kapitala 3944,08€-koa izango litzateke, makinak eta arropa sortzeko behar ditugun telen prezioak gehituz.